



❖ BERTSOLATA - HERNANIKO BERTSO ASTEA GABONETAN

Bertsolatan sei ekitaldi gabonetan: Gabon eskea bihar, eta bertso bazkaria larunbatean

Aurten lehenengo aldiz, Gabon eskea egingo du bertso eskolak, Olentzeroarekin, Zikuñaga eta Osiñagan. Bertso jaialdia Oialumen izango da, urtarrilaren 2an, 4 finalista eta 2 herritarrekin.

BERTSOLATA bete-bete egi-na dator aurten ere Hernani-ra, bertso gosez dagoen guz-tiarentzako. Hernaniko bert-so eskolakoek nobedade eta guztiko egitaraua prestatu dute beste behin.

Olentzeroetako erronda, urterokoa, Gabon eskea, aur-ten bertso eskolak antolatuko du, eta 15:30etan abiatuko dira Plazatik, Zikuñaga eta Osiñagara.

Beste nobedadea da, urtar-rrilaren 4an Biterin egingo duten aurkezpen ekitaldia. Bertso eskolak *Bertsolaritza Hernanin* proiektua aurkeztu-ko du, Hernanik eta bertsoak duten lotura, irudietan jasoa.

Bertso bazkaria eta jaialdia Urteroko ekitaldiak ere man-tenduko ditu bertsolatak. Bertso bazkaria larunbatean egingo dute Errioguardan, eta bertso eskolako kideak ariko dira kantuan, Joxe Luix Urdangari-nek aurkeztuta. Gaia: *Hernani*,

15.000 urte bertsotan. Sarrerak salgai daude Oindi eta Aralar tabernetan, 25 euroan.

Bertso jaialdia, urtarrila-ren 2an izango da Oialumen. Kantuan Txapelketa Nagusi-ko 4 lehenengoak, eta bertso eskolako beste 2. Sarrerak egunean salduko dira. ||

Abenduak 24, Gabon eskea. Zikuñaga eta Osiñagan, 15:30etan Gudarien plazatik.

Abenduak 26, Bertso bazkaria. 'Hernani 15.000 urte bertsotan', 14:00etan Errioguarda jatetxean.

Abenduak 31, Urte zaharreko erronda. (Ohitura Zaharrak elkar-teak antolatua). 18:00etan plazatik.

Urtarrilak 2, Jaialdi ikaragarria. M.Lujanbio, A.Arzállus, A.Rezola, J.Maia, A.Egaña eta I.Zelaia. 22:30etan Oialumen.

Urtarrilak 4, 'Bertsoa Hernanin' proiektuaren aurkezpena Aurkezpena eta Bideo emanaldia. 19:00etan Biterin.



Umeen bertso saioan banatu ziren bertso paperetako sariak.

Maddi Mujika irabazle, 'Joxe Legarreta' bertso paper lehiaketan

JOXE Legarreta 'Pepito' bertso paper lehiaketa jarri dute martxan, aurten berriz ere, umeentzako, eta Maddi Mujika Osiñagako *Anatx* baserri-koak irabazi du lehenengo saria (*kastatik Kondia!*). Gaia honakoa zuten: *Maitemindu egin zara. Hau da Mujikaren bi bertsoetatik bat: Zerua ta izar-rrak daude elkartuta / Gure antzean daude elkarri lotuta / Gauero amesten det zukin goatuta / Gu bi izartxo gara elkarri muxuka.* Aipamen berezia jaso dutenak beste lau izan dira: Leire Leonet, Alain Agirre, Beñat Garcia, eta Ilargi Muñoz.

Lehiaketako sariak joan den ostegunean eman ziren, Biteri bete jende-arean, Gabonetan urtero egiten den umeentzako bertso saioan. ||

❖ LANGILE IKASTOLA Kontzentrazioa gaur, Donostian

Langile ikastolak kontzentra-zioa egingo du gaur, eguer-diko 12:00etan Jaurilaritzako Hezkuntza Departamendu aurrean (Andia, 13). Langi-lek salatu nahi ditu, Jaurlari-tzak Hernaniko ikastetxeen inguruan hartutako zenbait erabaki: DBHko ikastetxe guztiak fusionatzea eta Haur eta Lehen Hezkuntzan, matrikulazioa 75 ikasletara mugatzea. ||

❖ DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Dobera-Kronikak ez du egutegirik argitaratuko aurten

Dobera Euskara Elkar-teak eta Hernaniko Kronikak ez dute egutegirik argitaratuko aurten; herrian egutegi bat baino gehiago ateratzen dire-la ikusita, eta joan den urteko salmenta bajua kontuan izan-da, hartu du erabakia. ||

❖ JOCC ZIKUÑAKO AMA Lizentziak egiteko azken eguna gaur

JOCC-Zikuñako Ama ziklotu-rista taldea federazio-lizen-tziak tramititzen ari da eta gaur aukera izango da 20:00etatik 21:00etara bule-goan. Prezioak honakoak di-ra: 100 euroko kuota (auto-nomikoa) edo 105 eurokoa (estatukoa), elkarteko kuota eta federazio-lizentzia barne. Ordainketa helbideratu ez dutenek kontu honetan sartu beharko dute dirua: 21010041030126160852. ||

❖ MUSIKA ESKOLA

Gabon kantak kantatzen ibiliko dira gaur kaleetan

Musika Eskolako ikasleak Gabon kantak kantatzen ibi-liko dira gaur kalez kale; arratsaldeko 17:00etatik aurrera. ||

Ospitaletarako autobus gehiago jarriko ditu Garayarrek, urtarriletik aurrera

Orain arteko ibilbide bera izango da: Andoain-Urnieta-Hernani-Ospitaleak.

Geltokiak, lehengoz gain, Sanitas eta Poliklinikan izango ditu.

URTARRILAREN 4tik aurre-ra, Autobuses Garayar SA enpresak eskaintzen duen Andoain-Urnieta-Hernani-Ospitaleak autobus lineak zerbitzu gehiago eskainiko ditu. Ospitaletarako zerbitzua astelehenetik larunbatera izango da, igande eta jaiegunetan ez da izango, eta hona-

ko ordutegia izango du, An-doainetik aterata: 07:20, 09:00, 10:00, 11:00 12:00, 13:00, 14:20, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:20. Ospitaletatik, berriz: 08:15, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 15:15, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 22:15.

Autobusaren ibilbidea orain arteko berdina izango

da eta geltokiak, lehengoz gain, Sanitas eta Poliklinikan izango ditu.

«Orain arteko ordutegiak jada ez zuen balio»

Manolo Garayarrek azalduta-koaren arabera, «orain egunero dago autobusa, baina An-doainetik 15:30etan ateratzen

dena bakarrik, lehen bisitak 16:00etatik 18:00etara izaten zirelako. Baina ordutegi horrek jada ez zuen balio eta zerbitzu gehiago jartzeko eskaerak jaso genituen; eta azkenean onartu du gure eskaera Diputazioak». Garayarrek azaldutakoaren arabera, langileen lan ordutegia ere kontuan hartu da. ||

GANEA

Ondo ondo pasa Gabonetan!!!

- Eguneko menua
- Garagardotegiko menua
- Garagardo aukera zabala
- Pierrade, Fondue, Kodilloa, Saltxitxak...

Argarain kalea, 2 behea • 20120 HERNANI (Gipuzkoa) • Tel. 943 33 25 29

TILIN * TOLON

BELAR DENDA

TERAPIA NATURALAK KONTSULTAK

☎ 943 55 56 94

Txirrita, 10 - HERNANI

GABONETAKO PREZIO BEREZIAK

YOME boutique

Nagusia, 63
Tfona.: 943 55 74 73
HERNANI

TELEFONAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● **Gauez:** **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941

EGURALDIA ● **GAUR** Eguraldi nahasiarekin jarraituko dugu. Edozein momentu eta guntan bota ditzake zaparradak. Gauean atertzea egingo du, baina hego haizea harrotu egingo da. Temperatura jaitxi egingo da.
● **BIHAR** Giro epelarekin hasiko da eguna, baina eguerditik aurrera euritara joko du eta beste fronte hotz bat espero da. Temperatura maximoak 12 eta 17 °C inguruan ibiliko da. (euskaltzain)

❖ GURE ETXOLA EMAKUME ZENTRUA



Gabonetarako plater ederrak prestatzen ikasi dute, aurten ere, Gure Etxolan. Donostiako Luis Irizar sukaldariak, 12garren urtez, Gabonetarako mokadu ederrak prestatzeko ikastaroa eman zuen joan den astean, Gure Etxola Emakume zentroan. Guztira 30bat emakumek hartu zuten parte eta ikasi dituzte egiten, besteak beste: urdaiazpikoz betetako penkak gazta urdinaz lagunduta, ahatearen lepoaldea patata eta foiarekin, patxaran eta mojito sorbeteak... ❖

❖ IRRINTZI TABERNA

Mus txapelketa izango da gaur gauean

Irrintzi tabernan mus txapelketa jokatu da gaur gaueko 22:00etan. Izena momentuan bertan eman behar da. ❖

❖ GALDUTAKOAK

Baserritar jantziak eraman zituen haizeak astelehen goizaldean

Astelehen goizaldean, haize zakarrak baserritar jantziak eraman zituen Nafar kalea eta Karobieta artean. Norbaitek jaso baditu, deitu dezala telefono honetara: 620 823 743. ❖

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Portatila salgai, egoera onean egoteagatik itzuli ezin dena. Toshiba Tecra A9, Intel Core 2 Duo Mobile T7250, 2.0 Ghz, DVD grabagailua, Windows Vista. **Prezioa: 430€.** Deitu: **678 595 638**

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: **616 886 660.**

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetako tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.**

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta berterbrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2), 943 55 76 76**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajustea neurologiko eta berterbrala, reflexologia, auriculoterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4**

IÑAKI XABIER ZABALA MARTINEZ

Zure irrifarrea gogoan, zure maitasuna besoetan, zure poztasuna zuregan, laguna.

ZURE LAGUNAK

Hernanin, 2009ko abenduaren 23an

IÑAKI ZABALA MARTINEZ

« Nehork ez digu irakasten nola bizi, ez eta nola maitatu behar den ere, baina maitatzen ikasiaz ikasten dugu bizitzen. Nehork ez digu irakasten nola hil, ez eta nola negar egin behar den ere, baina negar eginaz ikasten dugu hiltzen. Eta ahazten den hura hiltzen bada soilik, zuk Iñaki, beti iraunen duzu bizirik. Gugan. Egun handirarte euskaldun abertzale. Agur eta ohore lehengusu maite!! »

ZURE LEHENGUSUEK

Hernanin, 2009ko abenduaren 23an

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

IÑAKI XABIER ZABALA MARTINEZ

Herenegun hil zen Hernanin, 39 urte zituela.

Zure hutsunea eman diguzun goxotasun, maitasun eta elkarrekin bizitako momentuez beteko dugu. Muxu handi bat bihotza.

Zure bikotea: Monika Salvador Azurmendi; gurasoak: Iñaki eta Mari Luz; ezkon gurasoak: Manuel eta Maria Angeles; anai-arrebak: Xabier Bixintxo eta Naia, Iñigo, Arantxi eta Cedric; osaba-izebak, iloba, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Jakin arazten dizute **GAUR, ASTEAZKENA**, eguerdiko **HAMABITAN, POLLOEko ERRAUSTEGIAN** azken agurra emango zaiola.

Hernanin, 2.009ko abenduaren 23an

Helbidea: Perkaiztegi, 11 - 3. A

IÑAKI ZABALA MARTINEZ

Muxu haundi bat

ZURE LAGUNAK

Hernanin, 2009ko abenduaren 23an

IÑAKI ZABALA MARTINEZ

IRRIGOENEA OKINDEGIA

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte baizik

Hernanin, 2009ko abenduaren 23an

IÑAKI ZABALA

Nahi duzunean jokatu dugu.

BESARKADA BERO BAT

Hernanin, 2009ko abenduaren 23an

IÑAKI ZABALA MARTINEZ

APEZETXEA - GOÑI SENDIA

Hernanin, 2009ko abenduaren 23an

IÑAKI ZABALA MARTINEZ

"Zure oroimenak indartzen gaitu"

BESARKADA HANDI BAT ZABALA SENDIA

Hernanin, 2009ko abenduaren 23an

IÑAKI ZABALA MARTINEZ

GURASOEN LAGUNAK

Hernanin, 2009ko abenduaren 23an

IÑAKI ZABALA MARTINEZ

Erronka handietarako pertsona handia. Ez duk alferrik izango. Eskerrik asko.

TOTEM'eko LANKIDEAK

Hernanin, 2009ko abenduaren 23an

IÑAKI ZABALA MARTINEZ

Intsumisioaren bidetik askatasuneraino

ZURE BIDE LAGUNAK

Hernanin, 2009ko abenduaren 23an